

## 6. Hamaikagarrenean zorionez

*Joseba Mintegi Eskisabel*



### 6.1. Nor / Semblanza personal

Joseba Mintegi Eskisabel lehen hezkuntzako irakaslea da eta garrantzi handia ematen dio hizkuntzaren “magia” ikertzeari eta jendeari erraz ulertarazteari. Euskeraren Jatorriko kidea da eta hitzaldi batzuk eman ditu izan ditu gain honen inguruan.

### 6.2. Komunikazioa / Comunicación

#### a) 11.ean zorionez

Zorionez ama hizkuntza euskera dut. Nire aita euskaldun berria bazen ere, berak ere euskeraz egiten zidan eta oraindik ere egiten dit.

Nire zorioneko haurtzaroa euskeran murgildua izan zen, naiz eta gaztelarari belarriak maiz ikusten nizkion.

Etxean gaztelera telebista bidez sartzen zen eta 12 urteak bete ostean, auzoko lagunartea zabalduz joan arte, nire adiskide guztiekin euskeraz baino ez nuen egiten.

Ikastolan ere, gaztelerazko saioetan entzuten genuen aipatu hizkuntza eta, noski, frankismoaren beso luzeak bidaltzen zuen ikuskaria etorri aurretik ikastarazten zizkiguten gaietan.

Eskolaratze urteetan makina bat irakasle izan dut euskera irakatsi didana. Gai ugari jorratu genituen euskera gora eta euskera behera. Hatxez idazten ziren hitzak, deklinabidea, gramatika... eta atzizkiak ere.

Atzizkiak askotan entzun izan ditut irakasleen ahotan. Baina hara eta non, denborarekin jabetzen zaren denak ez dutela leku berbera izan. Are gehiago, batzuk ez dizkidate behin bakarrik ere aipatu eta egun, oraindik, liburu espezializatueta ere ez ditut behin bakarrik ere topatu.

Horien artean -ide atzizkia (Ahaide, Gogaide, Haurride, Senide...) edota gure biltzarraren aurtengo zorioneko zenbakiaren haritik azaldu nahi dizuedan -ka, -ke, -ga, -ge atzizkia.

Aipatua ez bada ere, atzizki oparoa da gure hizkuntzan. Jakin egin behar zergatik ez den aipatzen...

(H)amaika badira, egun, esku bien arteko hamar atzamarrak baino bat gehiago. Beraz, esku bietako atzamarrez zenbatu ezinezko kopurua. Eta, kasu honetan, atzizkitzat hartzen badugu azken -ka hori, hitzaren errotzat (h)amai geratzen zaigu. Amai, azkena, bukaera litzateke. Eta zer adierazten du -ka atzizki horrek?

Euskera aztertu beharko genuke -ka, -ke, -ga, -ge atzizki horren esanahia bilatzearren. Bada, ezer baino lehen, hizkuntzan, aditzekin fosilizatua geratu den forma aztertuko dugu. Horrela, egin gabe edota egiteko dagoena EGITEKE esaten dugu. Ikusi gabea edo ikusteko dagoena IKUSTEKE. Saldu gabe edo saltzeko dagoena, SALTZEKE. Oraindik etorri ez dena edo etortzeko dagoena, ETORTZEKE dagoela esan ohi dugu. Eta horrela nahibeste aditzekin.

Beraz, atzizkiak ukatu egiten du aditzaren esanahia. Erroaren kontrakoa adierazten digu.

Baina, gainera, hitzak ugari dira horrela amaitzen direnak. Hona hemen:

Aseka	Asetu gabea. Asetzeke dagoena. Ostera, kase>kose>gose.
Aska (Askatu) (Hatz-Atxi)	Atxiki gabea, lotu gabea. Azpian ez dagoena.
Ateka/Ataka (Ate)	Aterik gabeko pasabidea>Ate txikia
Bihozka	Bihozkabea, zitala, dongea.
Besaka (Beso)	Besorik ez duena.
Ganoka (Gano)	Ganorarik gabea, gogorik gabea. Baldarra. Traketsa.
Hostoka	Hostorik ematen ez duena, hosto urrikoa.
Inauska	Inausi gabea.
Iseka (Izen)	Izenik ez duena>burla. Izena duen oro bada. Beraz izenik ez duenik EZ DA.
Izeka (Izen)	Izenik ez dueña>burla.
Kaka (Ka>Kai, Ga>Gai)	Gairik gabea, gorputzik gabea>Egozten duguna.
Loka (Lotu)	Lotu gabe dagoena>Eroa, zoroa. Anda un loco suelto. Estar loco de atar.
Ahalke (Ahal)	Ahalik gabea, ezin duena>Nagia, alferra
Aske (Hatz)	Atzitu gabe. Azpian ez dagoena.
Bake (Bat, Ba)>Pake	Ba-rik gabe, arima gabea. Ala bat gabe, deus ez.
Egiteke (Egin)	Egin gabe.
Ekartzeke (Ekarri)	Ekarri gabe.
Erosteke (Erosi)	Erosi gabe.
Hartzeke (Hartu)	Hartu gabe.

Merke (Mer)	Baliorik ez duena.
Neke (Nahi)	Nahirik eza>ezina.
Artega (Arte)	Arterik ez duena, sosegurik ez duena, tenturik ez duena>urduria
Baga (Bat, Ba)	Bat gabe, Ba gabe, zerbait gabe
Deunga (Deun)	Deuntasun gabea>Gaiztoa.
Eskerga (Esker)	Eskertu ezin daitekeena, ahalegin handia>Itzelekoa.
Gozaga	Mingots, mikatz, mingar, karmin. Gozotasunik ez duena. Lur elkorra, ematen ez duena.
Indarga (Indar)	Indarrik gabea, motela.
Iraingatu (Irain)	Iraina garbitu. Iraina ordaindu. Irain gabetu.
Itxurga (Itxura)	Itxurarik ez duena, desitxuratua.
Juzga (Juzgatu) (Jus)	Justizia gabea, eskubiderik gabea.
Langa (Lan)	Lanik behar ez duena.
Lotsaga (Lotsa)	Lotsarik ez duena, lotsagabea.
Narga (Naro)	Ugaria ez dena>urria.
Muga (Mu)	Mugimendu gabea, toki finkoa.
Salga	Saltzeko ez dena. Erabilita dagoena. Barban, urri, sare, argal, meats, mehe.
Suga (Su)	Surik gabea. Berorik gabea Odol hotzekoa.
Zorga (Zor)	Zorrik ez duena.
Zurga (Zuhur)	Zuhurtziarik gabea. Ostera gazur>gezur.
Ahalge (Ahal)	Ahalik gabea, ezin duena>Nagia, alferra.
Argige	Iluna. Argirik gabea.
Bage (Bat, Ba)	Ba gabe, arima gabea. Ala bat gabe, deus ez.
Donge (Don)	Donik ez duena>gaiztoa.
Errege (Erra)	Erratzen ez dena, agintaria.
Indarge (Indar)	Indarrik gabea, motela.
Kolorge (Kolare)	Kolorerik gabea, zurbila.
Nagi (Nahi)	Nahirik eza>alferra
Suge (Su)	Surik ez duena, beroa behar duena>animalia narrastia.
Tolesge	Zimurrik ez duena. Onbera. Gaiztakeriarik ez duena.

# Loca/o

- Loca/o: Quizá del ár. hisp. \**lāwqa*, y este del ár. clás. *lawqā'*, f. de *alwaq* 'estúpido'; cf. port. *louco*.
- Loka: Lotu gabea, aske dagoena eta ohiko zentzuna galdu duena, oilaloken kasuan.



Beraz, (h)amaika, amairik gabea litzateke. Izan, zenbatzean, lehen muga, antza eskubete atzamarrek eman zigun. Horregatik bost zenbakiaren polisemia (bost axola...). Eta ostera hamar litzateke bigarren muga. Ha, arretik gora, jada, eskuko atzamarrez zenbatzea ezinezkoa da eta hortik gure (h)amaika.